

ARTE VITAL 2023 LEHIAKETA

Gertuko artea, Araban egina, eta bertako artistak sustatzeko eta hedatzen laguntzeko xedearekin, **Fundación Vital Fundazioak ARTE VITAL 2023 LEHIAKETA** antolatu du, zeina hurrengo OINARRIEN arabera egingo den:

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan 16 urtetik gorako artistek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, baldin eta Arabako Lurralde Historikoan jaio, bizi, ikasi edo lan egiten badute.

2 . BALDINTZA TEKNIKOAK

Gaia eta teknika librea izango da. Hurrengo ikusmen arteei egongo da irekita lehiaketa: Pintura, eskultura, argazkigintza eta bestelako teknikak.

Artista bakoitzak bere obra bakarra banaka aurkeztu ahal izango du. Obra jatorrizkoa, duela gutxikoa, argitaratu gabea eta sinatua izango da. Taldeko lanak, bi artistarenak edo gehiagorenak aurkeztu ahal izango dira. Artista bakoitzak banaka aurkeztu ahal izango du lana, eta taldeko lan bakarrean parte hartu ahal izango du.

Bi dimentsioko obrek ez dute neurtuko 1,50 m baino gehiago. Hiru dimentsiokoek ez dute 1,50 m-ko neurri bat ere ez izango. Ezingo dute pisatu 50 kg baino gehiago, bi kasuetan. Lan horiek instalatzeko muntaia berezia behar badute, lana aurkezten duenaren ardura izango da. Argazki-lanak esekitzeko prest entregatuk dira, eta teknikoki ongi egikarituak erakutsiak izateko.

Lanak haiek manipulatzeari ahalbidetuko duten materialetan egingo dira, eta baldintza egokietan ez dauden lanak edo, hausgarriak direlako edo egiteko erabili den materiala trinkoa ez delako erraz honda daitezkeen lanak baztertuko dira.

3. SARIAK

1.500€-ko lau premio bakar ezarri dira.

Sariei Pertsona Fisikoen Gainerako Zerga aplikatuko zaie, indarrean dagoen legeria beteaz. **Fundación Vital Fundazioak** edizio honetako artista irabazleen erakusketa bat antolatuko du 2024an.

4. EPAI-MAHAIAREN OSAERA

Aurkeztutako lanak aukeratzeaz eta sarituak kalifikatzeaz arduratuko den epai-mahaia artearen, kulturaren eta kritikaren munduan izen handiko profesionalen egongo da eratuta. Haien erabakiaren aurka ezingo da apelaziorik aurkeztu.

5. ERAKUSKETA

Aukeratutako eta saritutako lanekin erakusketa bat egingo da Montehermoso Kulturgunean, Fray Zacarías Martínez kalea, 2, Gasteiz, 2023ko irailaren 22tik urriaren 22ra.

Lehiaketara aurkeztutako lana erakusketan sartzeko aukeratzen bada, haren parte izateari ezingo zaio uko egin.

Aukeratutako lanen zerrenda hurrengo web orrian plazaratuko da: www.fundacionvital.eus, irailaren 15etik aurrera.

Erakusketa honek, gainera, 2022ko artista irabazleen lanak biltzen dituen atal bat izango du. Aurkeztutako lanekin, erakusketa birtuala egingo da hurrengo web orrian: www.fundacionvital.eus, irailaren 22tik hasita.

6. LANAK JASOTZEA

Lanak zuzenean entregatu beharko dira Montehermoso Kulturgunearen Lehenengo Solairuan, Fray Zacarías Martínez kalea, 2, Gasteiz, **goizez 10:00-13:00 eta arratsaldez 16:30-18:30 bitartean**; izena emateko buletina behar bezala beteta, NAN eguneratuaren fotokopia edo Errolda ziurtagiria edo Ikastetxearen ziurtagiriarekin batera. **Lanak onartzeko epea 2023ko irailaren 13 eta 14 izango dira.**

Antolatzaileek uneoro zainduko dute lanen osotasuna, haien esku dauden bitartean. Halere, ezusteko baten ondorioz hondatuko balira, ez dira egingo kalteen erantzule.

7. LANEN ITZULERA

Aukeratu ez diren lanak irailaren 15 eta 18 bitartean bildu beharko dira. Aukeratutako lanak erakusketaren ondoren bilduko dira, **2023ko urriaren 23 eta 25 bitartean**, jaso ziren toki berean eta ordutegi berarekin. **Entregaren agiria erakutsi beharko da.** Aipaturiko epean bilduko ez balira, egileak lana Entitate antolatzaileari emam nahi diola ulertuko da.

8. ONARPENA

Arte Vital 2023 Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta Epai-mahaiaren ebazpenak guztiz onartzea esan nahi du, eta legezko erreklamazio oro egiteari uko egiten zaiola.

Hura ez betetzeak hurrengo edizioetan kanpo uztea eragingo du.

9. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko Espainiako eta Europako araudiarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak eta zurekin dugun harremana garatzean sortzen diren beste guztiak FUNDACION VITAL FUNDAZIOAK tratatuko dituela, harremanak eta komunikazioa mantentzeko, Fundazioak sustatutako programak, jarduerak eta proiektuak kudeatzeko eta egiten ari garen jarduera, programa eta proiektu berriei buruzko informazioa bidaltzeko. Antolatuko ditugun jardueretan eta ekitaldietan, argazkiak eta/edo bideoak egin ahal izango dira. Datuen trataera zure baimenean eta gure interes legitimoan oinarritzen da. Datuak hirugarrenei jakinaraztea. Datuen nazioarteko transferentzia egiten dugu. Zenbait programatan, bereziki babestutako datuak trata daitezke. Datuak atzitu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, eta baita beste eskubide batzuk ere, www.fundacionvital.eus web orrian ikus dezakezun informazio gehigarrian eta osoan zehazten den bezala.

Oinarrien informazioa edo oinarriak eskatzeko, sartu hurrengo web orrian: fundacionvital.eus edo **Fundación Vital Fundazioa**, Aiztogile kalea 24 - 01001 Gasteiz, tel.: 945 06 43 68, e-posta: efpinedo@fundacionvital.eus.

Aurkeztu duenak ezagutzen eta onartzen ditu deialdi honen oinarri guztiak.